

EBAZPENA, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez **aldatzen baitira** Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez deitutako **enplegua finkatzeko salbuespenezko hautaketa-prozesuetako merezimenduak alegatzeko epearen datak**.

Administrarien, administrari laguntzaileen, erizainen eta laguntzako langileen talde profesionaleko eskaletan enplegua finkatzeko salbuespenezko hautaketa-prozesuetako merezimenduak alegatzeko epea 2022ko urriaren 3tik urriaren 17ra bitartean ezarri zen, hasiera batean.

Hasita daude hautaketa-prozesu horietan parte hartzen duten pertsonen balioestekoak diren merezimenduei buruzko datuak biltzeko lanak, eta agerian geratu da datu asko transmititu behar direla, eta interesdunek aurkeztu beharreko merezimenduen egiaztagirien kopurua ere handia dela.

Beraz, prozesuari ahalik eta eraginkortasun eta segurtasun handiena emateko, beharrezkoa da merezimenduak alegatzeko hasieran ezarritako epearen datak aldatzea, erakunde honek egin beharreko alde zuzeneko jarduketegi tarte handiagoa emateko.

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra. - Ezartzea administrarien, administrari laguntzaileen, erizainen eta laguntzako langileen talde profesionaleko eskaletan **enplegua finkatzeko salbuespenezko hautaketa-prozesuetako merezimenduak alegatzeko epea 2022ko urriaren 17an hasi eta urriaren 28an amaituko dela**.

Gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendariaren ebazpen honen aurka, ez baitu agortzen administrazio-bidea; beti ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoan arabera. Errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekurtsoa, ebazpen hau eman duen organoari jar dakioko, edo Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari. Gora jotzeko errekurtsoa aurkezten denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpen espresurik eman gabe, ezetsizat hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da.

Maite Barruetabeña Zenekorta
IVAPeko zuzendaria

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren eguna

